



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2021.02.23an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
MARIA UBARRETXENA CID
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ANDER GARAY ZABALETA
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

UNAI ELKORO OIANGUREN
AINHOA CABERO GARCIA
ARITZ MURUA ACHA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
EUGENIO OTSOA UGALDE

ARETXABALETA
ARETXABALETA
ARRASATE
ELGETA
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2021eko otsailaren 23an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrenean ezarritakoarekin bat etorrituz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituen, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren ohiko bilkura hau bideokonferentziaren bidez egin da, JITSI MEET aplikazioa erabiliz.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2021eko urtarrilaren 26an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Higiezinei eragindako kalteen aseguru-zerbitzua emateko AXA SEGUROS GENERALES, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS enpresarekin sinatutako kontratuaren luzapena

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2020ko otsailaren 26an sinatu zuen Mankomunitateak AXA SEGUROS GENERALES, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS enpresarekin Mankomunitatearen higiezinei eragindako kalteen aseguru-zerbitzua emateko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da urtebeteko iraupena izango duela, 2020ko ekainaren 1eko 00:00etatik 2021eko maiatzaren 31ko 24:00etara, eta urtero luzatu ahalko dela, elkarrekin adostuta, 5 urtez gehienez ere, hasierako aldia barne hartuz.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta idazkariaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2022ko maiatzaren 31ko 24:00etara.

2.2.- Ondare-erantzukizun zibileko aseguru-zerbitzua emateko MAPFRE ESPAÑA, S.A. COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2020ko maiatzaren 29an sinatu zuen Mankomunitateak MAPFRE ESPAÑA, S.A. COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS enpresarekin Mankomunitatearen ondare-erantzukizun zibileko aseguru-zerbitzua emateko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da urtebeteko iraupena izango duela, 2020ko ekainaren 1eko 00:00etatik 2021eko



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

maiatzaren 31ko 24:00etara, eta urtero luzatu ahalko dela, elkarrekin adostuta, 5 urtez gehienez ere, hasierako aldia barne hartuz.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta idazkariaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2022ko maiatzaren 31ko 24:00etara.

3.- INGURUMENA

3.1.- Erabilitako olio bilketako edukiontziak saltzeko espedientea

Mankomunitateak sukaldeko olio erabilia biltzeko edukiontzi berriak jarri behar dituela eta, erabilitako edukiontziak enkante bidez saltzeko bideratutako espedientea ikusirik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratutako espedientea onartzea.
2. Enkanterako Administrazio Klausula Partikularren Agiria onartzea.
3. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

3.2.- ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresak jarritako kontratazio-arloko errekurtsio berezia, sukaldeko olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko zerbitzua emateko kontratua esleitzeko erabakiaren aurka; berri ematea

Idazkariak sukaldeko olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko kontratua RAFRINOR, S.L. enpresari esleitzeko erabakiaren aurka ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresak jarritako kontratazio-arloko errekurtsio bereziaren berri eman du, Baita ere, errekurtsio horri buruzko Mankomunitatearen txostenaren berri. Orain, Kontratuen Inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoak bere ebazpena eman beharko du.

Gobernu Junta jakinaren gainean gelditu da.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; hainbat luzapen

- L.H.B. (LHSY-STUDIO) 3. urterako luzapena

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2022ko martxoaren 12ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 6-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

baimena, L.H.B. ekintzaileari emana, Gobernu Juntaren 2019ko otsailaren 25eko erabaki bitartez.

- A.U.G. (UNAGO S*LAR, S.L.); 2. urterako luzapena

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2022ko otsailaren 19ra arte, luzatzea Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (5-AR) modulua erabiltzeko baimena, A.U.G. ekintzaileari emana, Gobernu Juntaren 2019ko abenduaren 17ko erabaki bitartez.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

21/05.- LEHENENGO.- AUREN CONSULTORES SO, SLP enpresari esleitzea, Foru Kontratazioen Zentralaren bidez erakinen energia ikuskapenak eta ziurtapenak egiteko zerbitzua kontratatzeko esparru akordiotik eratorritako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan, 2.800 €-ko prezioan, BEZ gabe, ondorengo xehetasunaren arabera:

- Mankomunitatearen egoitzaren eraikina: 1680 €.
- Zubillagako hiltegiaren eraikina: 1120 €.

BIGARREN.- Kontratu honi dagokion gastua onartzea.

21/06.- 21/01 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BOST MILA ZAZPIEHUN ETA LAU EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (5.704,68 €).

21/07.- 21/02 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA BOST EURO ETA HIRUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (153.325,74 €).

21/08.- 2021eko urtarrileko nomina arrunta onartzea ondorengo laburpenaz:

Langileen ordainsariak	Soldata	Gizarte segurantza	Elkarkidetzak	Km	Atxikipenak	Likidoa
Karguak	3.087,54 €	1.167,10 €	0,00 €			
Funtzionarioak	62.523,68 €	16.565,89 €	1.736,76 €	61,63 €		
Interinoak	16.355,45 €	5.597,24 €	230,31 €			
Laboralak	49.282,81 €	16.858,21 €	1.021,74 €			
Guztira	131.249,48 €	40.188,44 €	2.988,81 €	61,63 €	35.186,43 €	96.124,68 €



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

21/09.- “Epeleko zabortegian euri-urak drainatzeko azpiegitura egokitzeko obren Proiektua” gauzatzeko lanak egiteko CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A. enpresak aurkeztutako Segurtasun eta Osasun Plana onartzea, Segurtasun eta Osasunaren koordinatzaileak bere txostenean ezarritako baldintza eta aholku guztiekin.

21/10.- 21/03 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRUREHUN ETA LAUROGEI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA ZORTZI EURO ETA HOGEITA HAMALAU ZENTIMO (380.728,34 €).

Gobernu Juntako kideen legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin premiazkoztat jo ondoren, gai-zerrendan sartu gabeko ondorengo puntua aztertzeari ekin zaio.

Oñatiko bi ekarpen-guneetan haizeak eramandako teilatuen konponketa

Orain dela gutxi izandako haize bortitzak Oñatiko bi ekarpen-guneetako teilatuak eraman zituen, ETEOkoa eta San Pedrokoa. Teilatu hauek lehenbailehen konpontzea komeni denez, eta kontuan izanda azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, 118.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, hau kontratu txikia dela.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Gastua onartzea, eta RAMEL REFORMAS, S.L. enpresari esleitzea bi ekarpen-guneetako teilatu hauek konpontzeko kontratu txikia 11.419,47 €ko prezioan, BEZa barne.

6.- GALDE-ERREGUAK

Ander Garayk esan dio lehendakariari berak jakin duela Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak Mankomunitateari bidali diola Batzar Orokorrak, 2021eko urtarrilaren 11ko bileran, hartutako erabakiaren jakinarazpena. Eta erabaki honetan, bestek beste, jasotzen dela Debagoieneko Mankomunitateko kontu-hartzaileari egindako informazio eskaera erabat ukatzea, legitimaziorik ez duelako. Eta kontu-hartzailearen jarduketaren inguruabarrak direla eta, diziplinako erantzukizuna egon litekeela. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren 92.2,e) artikuluan arau hauste oso larria bezala honako hau jasotzen duela: “*Bere kargu edo eginkizunen ondorioz eskuratutako dokumentazioa edo informazioa behar ez den moduan argitaratu edo erabiltzea*”.

Eta jakinarazpen horren berri Gobernu Juntari eman behar zitzaiola, ez ematea errespetu falta bat dela; bere informazio eskubidea urratu egin dela.

Eta gaineratu du idazkariaren txosten juridikoa behar dela argitzeko ia kontu-hartzailearen aipatu jarduketan arau-hausterik egon den ala ez. Eta lehendakariak ez badio idazkariari txosten hori eskatzen, berak aurkeztuko duela eskaera Gobernu Juntakideen heren baten sinadurarekin.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Gorka Artolak erantzun dio logikoena dela informazio guztia dagoenean Gobernu Juntari berri ematea.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA